

HIZKUNTZARI BURUZKO OIHENARTEN ZENBAIT IDEIA

Rosa Miren PAGOLA

Oihenart aintzindaritzat hartua izan da gure artean, besteak beste, euskara hizkuntzari gramatika ikuspegi begiratzen lehendabizikoa izan zelako, baina oraindik aurreratzaileragoz har daiteke hizkuntzari buruz —hizkuntzei buruz orohar esan nahi bait da— zituen ideietan. Formazio sakona eta hizkuntzetan prestatua eta aditua izanik, horrek denak lagunduko zuen izan zituen irizpide edo teoretara iristeko, maila aintzintu hori, bere herrikide ospetsuen gisa, Europako hizkuntzen enumerazio eta sailkapenak eginez ez bazuen eskuratu ere¹.

Literatura alde batera utziz gero, hizkuntzalaritzara lotuz, *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae* idatzi zuen libururik garrantzitsuen eta, gainera, ia bakarra da². Bertan azaltzen direnak aztertuko ditugu, beraz, datozen puntuetan.

A. Oihenart historialaria izan zen. Ezin da hau begi bistatik galdu, historialariaren ikuspegiak zuzenean baldintzatuko dituelako hizkuntzari buruz-

¹ Rodrigo Ximenez de Rada eta Andrés de Pozaz ari gara noski, hauek biak baitira lehenengoak, Espainia mailan batez ere, garai desberdinetan, Europako hizkuntzen deskribapena egin zutenak: Garestarrak, Ximenez de Radak alegia, XIII. mendean, *De rebus Hispaniae*-ko lehenengo liburuan, eta XVI. mendean, urduñarrak, *De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas* liburuan. Aipagarria da garai haietarako zein prestakuntza handia zuten biak ere hizkuntzei zegokienez; Ximenez de Radaz Coseriuk (1972, 200 eta 206, 20. oharra) hauxe dio: «Rodrigo de Toledo había estudiado en París y conocía, según parece, un gran número de lenguas. Según una fuente, en el Concilio Lateranense de 1215 sorprendió a todos hablando en siete lenguas europeas; según otra, sabía francés, italiano, inglés, alemán, griego, latín, hebreo y árabe». Pozak, Salamancatik at, Lovainako unibertsitatean bederatzi urtez ihardun zuen ikasten eta, dirudienez, zekizkien hizkuntzak, euskaraz eta gazteleraz kanpo, honako hauek ziren: flamenkoa, alemaniera, italiera, frantsesa, ingelesa eta zinbrikoa. Hizkuntzen ezaguera honek lagundu zuen agian, biak, bakoitza bere garaian, puntakoak izan bait ziren.

² Bi argitalpen izan zituen, biak Parisen eginak: lehenengoa 1638. urtean. Bigarrena, *Edition emendata et aucta*, hizkuntzari dagozkion ataletan, batez ere, zabalagoa eta gehitua, 1656, urtekoa. A. Javier Gorosterratzuk gaztelerara itzuli zuen azken edizioa eta guk lan honetan jarraitzen duguna da (1926-28).

ko ideiak eta planteamenduak. Horrez gain, legegizona ere bazen, eta baliteke horrek ere eraginik izatea, ez hainbeste bere teoretan, baina bai lanean iharduteko eran. Zorroztasunez planteatzen du esaten duena eta, batez ere, esaten duen hori beti iturri idatzietan oinarritzen du, testu klasikoak ondo ezagutzen bait zituen, alferrikako literaturarik gabe, beti ere objektibitatearen mesedetan. Esan daiteke, beraz, traszendentzia bilatzen duela Euskal Herriko historia edo kronika idazten duenean; eta esaten dugunaren alde ere egongo litzateke, tradizio klasiko eta ofizialarekin jarraituz, latinez idatzia dagoela eta ez frantsesez beste lan batzu bezala³. Bestalde merezi du azpimarratzea historialari bezala izan zuen zorroztasuna, bere garaian ohi ez bezalakoa Caro Barojak dioenez: «su sentido crítico era mucho mayor que el de Garibay y otros historiógrafos posteriores» (1979, 15).

1. HIZKUNTZEN SORRERA. BALORAZIO LINGUISTIKOA

1.1. Kantabrismoa

Garai hartako hizkuntza-ideiei buruz hitz egiterakoan, ezinbesteko gertatzen da Kantabrismoaz mintzatzea hain hertsiki loturik ikusten bait zituzten orduko idazleek leinua eta hizkuntza. XVI. mendetik aurrera, hizkuntzaren apologiarekin batera, kantabrismoaren teoria defendatzen zen. Kantabriarrak eta euskaldunak batzen ziren. Lurraldearen morfologia fisikoa eta herriak elkarren ondoan aurkitzeak bazuen horretan eraginik. Euskal Herria Kantabriarekin bat egitera jotzen zen. Ideia honek, Espainia mailan, XVIII. menderarte iraun zuen, Aita Floresek argitu zuen arte hain zuzen⁴.

Euskaldunek elkarketa berdina egiten zuten beste arrazoi batzutan oinarrituz eta beste helburu batez. Erromatarren aurka egon ziren gudetan kantabroak euskaldunekin bat eginik burrukatu zirela defendatzen zuten, eta erabiltzen zuten hizkuntza bakarra zela, «lengua cántabra» alegia, euskara zelarik hizkuntza hori, noski. Hemendik inongo beste herrirekin ez zela nahastu eta, ondorioz, odolaren garbitasunari eustera pasatu zen. Euskaldunen artean, XVI. mendean

³ Bi korrante kontrajarriak ager daitezkeela XVI-XVIII. mendeetako tarte horretan esan izan da. Bat katolikoena Laburdi eta Hegoaldean kokatzen dena eta protestanteena bestea, Behe Nafarroan eta Zuberoan. Bigarren honek bide bat zabaltzen du, zientifikoa, eta serioa Zalgise eta Bela buru direlarik, errefrauak, hiztegia, gramatika, olerkiak eginez. Eta, neurri on batean, Oihenart litzateke korrante honetan nabarmenena. Lehenengo taldekoak, aldiz, beste abiapuntutik ihardunez, apologistak lirateke nagusiki: Etxeberrri Sarakoa, Larramendi eta gainerakoak. Dena den, Oihenart katolikoa zen eta, gramatika mailan eta hizkuntza idatzian behintzat, neologismo eta aditz trinko zalea. Bestalde, egin zituen etimologiaren azterketek ere, neurri batetan, aipaturiko bidetik urrutiratu egiten dute.

⁴ Ikus A. Tovar (1980, 13). Laburpen zehatza eta ondo dokumentatua «Pervivencia de los mitos» deituriko atalean, A. de Mañaricuak (1973, 234-237) ematen du.

Esteban de Garibay eta Andrés de Poza Lizentziatua izan ziren ideia horren bultzatzaile garrantzitsuenak, eta geroxeago Baltasar de Echave ere bai⁵.

Tovarrek (1980, 54) honela iritzi zien Oihenarten ideiei teoria honetaz: «En la literatura de vascos sobre el país el libro es original, y representa la reacción de un navarro frente a la identificación que guipuzcoanos y vizcaínos habían generalizado, sin duda con precedentes anteriores de vascongados con cántabros».

Oihenartek iritzi kontrajarriak dituela dirudien arren, ongi irakurtzen bazaio, bere ikuspuntua aski garbi uzten du. Lehenengo liburuko 1. kapituluan, «vascos» eta kantabroak bat egiten ditu, baina beste idazleek azken hitz honi ematen zioten edukia baztertuz. Hona nola dioen beste idazle batzuen iturrietan oinarrituz⁶ (1926, 143-44): «Con el nombre de vascos comprendemos también aquí a los que vulgarmente llaman cántabros; pues ya se ha introducido la costumbre, [...] que en latín se denominen cántabros a los que los franceses llaman Vascos o Vizcaínos, y los españoles Vascongados (éstos son propiamente los vascos)». Bereizi egiten ditu, beraz, «kantabroak» eta «bascos», hauek baskoien leinua edo adierazi nahiz, baina praktikan, goian esaten duen bezala, denak —vascos, vizcainos, vascongados—, bat eginez, eta, nolahi ere, apologisten ideietatik aldenduz. Bigarren liburuko 1. kapituluan, berriro ere garbi azaltzen du: «De los vascos, unos viven en la Iberia, aquende el Pirineo, otros en la Aquitania, allende el Pirineo. Viven a esta parte los navarros, jaccenses, alaveses, guipuzcoanos y vizcaínos; allende el Pirineo los gascones y los vascos. [...] Demos principio a los navarros, a los cuales corresponde principalísimamente el nombre de vascos; porque de ellos provino a todos lo demás, que llevan esta denominación» (1926, 475)⁷.

Beste batzuen iritziak ere eskeintzen ditu. Honela Kantabroak Gaztelako Erresumaren barnean urte askotan egon ziren lurraldeetako biztanleak baizik ez zirela esanez, hau da, bizkaitarrak, gipuzkoarrak eta arabarrak, nafarrak kanpoan gelditzen zirelarik⁸. Ambrosio de Moralesi buruz, berriz, «confunde del todo Cantabria con Vizcaya» dio; azkenik, beste zenbait idazleren ikuspuntua ere, beretik erabat desberdina, azaltzen du: Nafarroako Erresumaren menpe

⁵ Nahastu gabeko herria zela eta euskaldunen odolaren garbitasuna sutsu defenditu zuena Larramendi izan zen. Hain gogorra eta indartsua izan zen bere ideietan, non, hori zela eta, Caro Baroja, honako hitz hauek esatera iritsi bait zen: «[...] podría tomarse como precursor de los modernos racistas» (1958, 89). Ikus Mitxelena ere (1960, 118-19, 16. oharra).

⁶ Ideia honetakoak bait dira, Oihenarten esanetan: Jovio, Julio Scalígero y José Scalígero, Thuan, Ferrón, Florián de Ocampo, Pedro Mártir, M. Del Río y Mariano (1926, 143).

⁷ Horrela, gainera, gure ustez, garbi gelditzen da hitz honen esanahia. Hona J. Gorrochateguik honi buruz egiten duen azalpena: «La diferencia entre vasco y vascón (Basque, Bascon) es la que corresponde a las existentes entre los casos sujetos y régimen en los dialectos galorrománicos; por ej., *emperere/empereor.*» (1984, 71).

⁸ Florian, Mártir, Mariana (1926, 144).

zeuden herriek osatzen zutela Kantabria, kasu honetan ere Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba sartzen zirelarik⁹.

Oihenartek ez ditu onartzen Kantabriari beste idazleek ematen zioten hedadura geografikoa eta irizpide historikoa, eta aipaturiko planteamendu desberdin horiek denak gaitzetsi egiten ditu¹⁰.

Iritzi propioa ematen duenean, berriz, deskribapen fisiko zehatza egiten du, bere ikuspegi Kantabria beste zerbait dela agertuz: «Aunque nosotros no podemos describir exactamente por todos los lados el lugar fijo de Cantabria, sin embargo nos atrevemos a afirmar que están en un grandísimo error los que la circunscriben con los límites de Vizcaya, Alava, Rioja y Guipúzcoa, ni una sola de las cuales deberá contarse como parte de ella¹¹» (1926, 145).

Bere iritzia, testu idatzietan oinarrizten delarik esan bezala, garbia da. Ptolomeo, Mela, Plinio eta Estrabonen testuak lekukotzat hartuz, eta euskaldunen leinuen mugak ezarriz, honako galdera erretoriko hau egiten du: «Pero si admitimos a los cántabros en Vizcaya, Alava y Guipúzcoa, los cuales son los últimos pueblos, que terminan a España, por el lado del Pirineo ¿dónde tendrán sus moradas los Autrigones, Caristios y Várdulos, que las deben tener entre los Cántabros y la cima del alto Pirineo?» (1926, 145-146).

Nolanahi ere, baskoien leinuaren kokapena ez da hain eraginkorra eztabaida honetan, azken finean, ez duelako inork, ikusi dugun kasu bakarrean izan ezik, Kantabria delakoaren barnean sartzen. Oihenartek berak ere ez du zalantzatarako bide haundirik ematen: «Ciertamente, si atendemos a la verdad, veremos que los guipuzcoanos y alaveses corresponden a los Várdulos y Caristos, mas los Vizcaínos y Burebanos a los Autrigones, y en fin, los Riojanos a los Berones» (1926, 146).

3. kapituluan aurretik esandakoa osotu baizik ez da egiten. Lehen euskal leinuen eremua zein zen esan badu, orain Kantabriak hartzen duen hedaduraz mintzatuko da. «Se propone la descripción verdadera de Cantabria» izenburuz autrigoien leinua amaitzen zen tokian Kantabria herria hasten zela dio: «aseguramos que el principio de Cantabria se ha de poner en la línea que, partiendo de Villafranca, llamado Montes de Oca, va al puerto de Laredo, en el litoral del Océano Cantábrico; [...] respecto del occidente señalaremos los límites de Cantabria, [...] en el estuario del mar, denominado de Avilés, que está situado en Asturias de Oviedo» (1926, 147-148).

⁹ «[...] eran cántabros los pueblos sometidos a los reyes de Pamplona, llamados vulgarmente navarros, cuya región en su mayor parte corresponde a la antigua Vasconia...». Eta irizpide honen zabaltzailea Prudencio de Sandoval izan omen zen «cuando hizo a Pamplona la Metrópoli de Cantabria, y describió a ésta dando por límites los montes Pirineos, y los ríos Ebro, Aragón y Gállego». (1926, 144).

¹⁰ Besteak beste, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia, Errioxa eta Asturias hartu eta Kantabrierekin bat egiten zutenen aurka mintzo da (1926, 144-45).

¹¹ Azpimarratua geurea da.

Konturatzen da, gainera, hori defenditzea ez dutela denek onartuko, batez ere Euskal Herrian bertan, eta, agian, horregatik sartuko du tartean euskaldunen laudorioa: «No faltarán quienes desaprueben que yo distinga a los Vizcaínos, Alaveses y Guipuzcoanos, pueblos valerosos y belicosos, de los Cántabros» (1926, 155)¹².

Esan daiteke, bada, Oihenarten iritziak aurrerakoiak izan zirela bere garaian, lortu ez bazuten ere behar zuten oihartzunik; zientifikoak, zorrotzak eta nortasunez azalduak, batez ere historiografiari dagokionez.

1.2. Hizkuntzaren aintzinasuna

1.2.1. *Errenazimendua*

Errenazimendua, hainbeste aldaketetarako hain garrantzitsua izan zena, hizkuntzaren historian ere abiapuntu aparta gertatu zen. Erdi Aroak izan zuen eragina ahazten ez bada ere, Errenazimenduak bideratuko ditu XVIII. azken hamarkadetan eta XIX. menderate hizkuntzaren inguruan egingo diren azterketak¹³.

Ezaguna denez, herri-hizkuntzak duintzea eta kultur mailara jasotzea Errenazimenduari zor zaio, hizkuntza klasikoei bakarrik eskeintzen zitzaizkien begiramena eta azterketa gaindituz eta herri hizkuntzen ernatzea lortuz. Hauxe litzateke lorpen nagusia eta hurrengo mendeetan, XVI. eta XVII. ean batez ere, bide horri jarraitu eta jokabide hori garatu eta sendotu baino ez da egingen.

Herri hizkuntzak, beraz, hurbildu egin zitzaizkien Errenazimenduko jendei eta batez ere jakintsuei, hauei azterketa-gai bihurtzen zaizkielarik. Honela, hizkuntzaren jatorria¹⁴ eta hedapena jakin nahi zituzten aurrena; eta horren ondoren, eta horrekin batera neurri batean, hizkuntzen aniztasunaren arrazoia bilatu nahi zuten eta hizkuntzen bilakabidea ezagutu¹⁵; horien inguruan sortzen ziren galderai erantzun nahi zieten batez ere XVI. mendean. Horren

¹² Alde batera uzten ditugu hain interesgarriak eta gaurkotuak gertatzen diren irizpide eta azalpen historikoak. Bertan, Erdi Aroan, bisigodoen garaian, Baskoien indarraz eta lurraldearen mugak zabaltzeaz mintzatzen da.

¹³ Iritzi horretakoak dira hizkuntzalaritzaren historiaren egileak. Ikus, besteak beste, Robins (1974, 134).

¹⁴ Erdi Aroko eragina garbia da kasu huetan guztietan. Elizako Aitek, San Agustin eta hurrengoek, dagoeneko defenditzen zuten ideia zen, hasiera batean hizkuntza bat eta bakarra zela, eta berau hebraiarra alegia, San Jeronimok zabalduko zuen eta ordutik denak, orpo orpo, segitu zuten.

Adierazgarria gertatzen da Sánchez Monterok, XVIII. mendean, zioena: «es común sentir de graves autores que, si creciesen dos niños en tal sitio que no oyesen hablar persona alguna, ni canto de ave, ni voz de bruto, que naturalmente hablarían la lengua natural que es la hebrea, por ser la primera que recibió la Naturaleza». Ikus, Lázaro (1949, 89).

¹⁵ Bibliaren eragina ere bortitza da hemen. Bertan agertzen den *Erat terra labii unius, et sermonum eorundem* apurtu egingo da, Jainkoaren zigor bezala, gizonaren harrokeria eta gehiegikeriagatik, *Exodo* Liburuko X. kapituluko Babeleko pasartean oinarrituz.

ondorioz mitoak eta dogmak berez sortzen dira, literatura ugarirekin ornituak. Edonola ere, alderdi onak ere agertzen ditu garai honek eta arazo horiek, teoria mailan, hizkuntza bakarrean gertatzen diren banaketen edo zatiketen bitartez planteamendu garrantzitsuagoetara iristen bait dira. Bilakabide honi esker, hizkuntzalaritzak, ez beharbada zientzia mailara iritsiz, aurrera egingen du, denboraz metodo erkatzailea sortuko duelarik. Hori gutxi balitz, Errenazimenduan hizkuntzen sailkapenak eta, bide batez, hizkuntzen barneko deskribapenak, hau da, gramatikak¹⁶ egitea ere lortzen da.

1.2.2. *Euskara Espainian*

1.2.2.1. AINTZINDARIAK ETA BILAKABIDEA

Garai hartan egiten zen hizkuntzaren azterketa eta kanpo historia humanismoak hartzen eta lantzen zituen gaiekin oso nahastua bilakatzen zen. Bestalde, herri hizkuntzak, orohar, apreziatzen eta aztertzen hasten den neurrian, norberaren hizkuntzaren estima ere goraka joaten da. Hori dela eta, Babeleko jatorriaren tradizioari jarraituz, uste zen lurralde bakoitzeko hizkuntza zela lurralde horretan, edo zabalagoetan, mintzatu zen hizkuntzarik zaharrena edo hizkuntzen nahasketatik sortutako lehenetarikoa¹⁷. Hizkuntza mito hauen garapen nagusia XVI. mendean lortu bazen ere, hurrengo mendeetan, XVII. eta XVIII. mendearen erdirarte, behintzat, eutsiak eta defendituak izan ziren¹⁸.

Ez zen euskara korronte horietatik at gelditu, agian alderantziz baizik. Hizkuntza berezia eta desberdina zenez, ideia horiek hari atsiki edo egokitzeke aukera erosoagoa eskeintzen zuen. Euskararen nabarmentasunak berak eragiten zuen ideia horiek euskarari sutsuago ezartzera. Agian, horregatik, Erdi Arorako ere euskararen aintzinasunaren aldeko testigantzak aurki daitezke¹⁹. Dena dela, Euskal Herrian ere, beste tokietan bezala, XVI. mendean indartzen da

Alde batera uzten dugu, bestalde, hizkuntzaren jatorriaz eta zabalketaz hedatua zen beste teoria, errazionalistena noski, banakako sorreran oinarritzen bait dute beren teoria.

¹⁶ Denek ere, latinaren eskema eta metodologia jarraitzen dute; halere, ezin daiteke nabarmendu gabe utzi gertatzen den ugaritasuna. Kukenheimek, esaterako, XVI. mendean eginiko gramatikaren kopuruak ematen ditu: italiaraz 72, frantsezaz 55 eta gazteleraz 37. Dena den, garrantzitsuena gertatzen dena jarrera beraren aldaketa bortitza litzateke, Kukenheimek berak dioen bezala: «A l'époque de la Renaissance, le latin -mais alors celui des bons auteurs classiques- continue d'être objet d'étude, mais il n'est plus seul: s'y ajoutent le grec et l'hébreu et même l'étude des langues vulgaires» (1966, 21).

¹⁷ Horrela defenditu zuten portugesekek, katalanek, espainolek, eta baita, frantsesek edo germaniarrek ere. Ikus, batez ere Frantzian gertatu zen mogimendurako, Dubois (1970, 68-69).

¹⁸ Lázaro Carreter-ek (1949, 29) esaten duenez «Durante el siglo XVII continúa triunfando en España la explicación platónica ingeniosamente aliada con la Biblia».

¹⁹ Badirudi Flavio Josefo izan zela lehenetarikoa eta, honekin batera, Nafarroako Gadeseko Rodrigo Ximenez de Rada, Toledoko Artzapezpikua, euskararen aintzinasun hori defenditu zutenak, Tovar (1980, 17-19); edozein modutan, nafararren argudioak oso garbiak ez dira ikertzaile batzu gaztelerarako ere berdin aplikatzen bait dituzte, ikus polemika honetarako, Zubiaur (1990, 70).

mogimendu hau Zaldibia, Garibay eta Poza euskal idazleekin²⁰. Edozein kásutan, kontutan hartu behar da ez zela izan euskalduna euskararen aintzinatasun hori defenditu zuen lehena. Lucio Marineo Siculok²¹, garai zaharrea Penintsula osoan hitz egiten zen hizkuntza «lengua vizcaina» zela idatzi zuen. Horrekin batera, P. Merula eta J. Scaligero ere aipatzekoak dira, Marineo Siculoren ideiarri jarraituz, Iberoak euskaldun jatorrizkoak zirela esaten bait zuten²². Gaztelazko literaturan ere badago, XV. mendetik hasita, horri buruzko aipamenik, Gaztelako Erreinetako hizkera euskara izan zitekeela eta horren kontzientzia ere nabaritzen zela gizartean²³.

Honako hauek ziren, laburbilduz, garai hartako idazleek mantentzen zituzten jokabide nagusiak:

1. Tradizio biblikoari jarraituz eta, lehen esandakoaren arabera, euskarari ere hizkuntzaren jatorriari eta aniztasunari buruzko garai hartako idciak ezarri zitzaizkion. Tubalen mitoa, esaterako, Zaldibiak eta Garibayk euskarari zuzenean aplikatu zioten; ordutik, ideia hau izan da gehien garatu dena eta duela gutxi arte, hein batean, irau duena²⁴.

2. Aurreko puntuan esaten denetik jarrai daitekeenez, euskara hizkuntz babilonikotzat hartzen zen, lengua matriz edo 72 haietako bat alegia, eta, horren ondorioz, euskara hizkuntza haundia eta ederra zela, besteekin ezin erka zitekeena, noski.

3. Horren aldeko arrazoiak garbiak ziren:

- Euskara jatorri garbi eta noblekoa zela, beste inongo hizkuntzarekin nahastu gabea.
- Penintsula Iberiko osoan erabiltzen zen hizkuntzarik zaharrena eta aintzinako garaian zegoen bakarra.

Baieztapen horiek arrazoi linguistikotan oinarritzeko metodo etimologikoaz baliatzen dira. Andrés de Pozak, Espainia guztitik jasotako toponimiaren

²⁰ Garai hura aztertu dutenen artean bi lan daude ia klasikoak direnak eta ikuspegi aski berezikoak, bat: W. Bahneren laneko (1966) 5. kapituluak «El vasco y el problema de la lengua primitiva de España» (85-99. or.); A. Tovarena (1980) bestea, 2. eta 3. kapituluak batez ere: «Lucas y sombras del Siglo de Oro» eta «Vascos escriben sobre su país» (26-65. or.). Bestalde, aipatzekoa da J.R. Zubiaurren lana ere, XVI. mendeko hiru idazle hauei zuzendua baita (1990).

²¹ Errege Katolikoaren kronikak idatzi zituen *Cosas Memorables de España* (1539); IV. liburuan, hain zuzen, honi buruz mintzatzen da.

²² XIX mendean gorpuztu zen «Vasco-iberismoa»ren teoriaren oinarria hemen dago beraz; hemen eta apologisten lanetan, noski.

²³ Enrique de Villenak eta Alonso de Madrigalek aipatzen dute gaia zuzenean oinarritzen ez badute ere, eta Juan de Valdés ere mintzatzen da horretaz. Ikus Tovar (1980, 28-32).

²⁴ Neurri batean, «falso» Berostotik datozen mito hauetan oinarritzen diren genealogiak lirareke. Bestalde, XVI. mendearen hasieran Alonso de Madrigalek, *el Tostadok*, Tubalen mitoa garatu eta indartuko du besteei bidea zabalduz. Gero XVIII., mendean, Astarloak zabalduko du beste mitoa, Paraisoan erabiltzen zen hizkuntza euskara zela alegia; *Apologia de la lengua bascongada* liburua 1803. urte arte ez bazen argitaratu ere, bere ideiak arrakasta haundia izan zuten egilea bizi zenean ere.

azterketa eginez, euskal etimologiak ematen ditu, eta honen bidez euskara Penintsula guztian hedatzen eta erabiltzen zen hizkuntza bakarra zela frogatzen du. Gero, besteren artean, Baltasar de Echavek ere, XVII. mendearen hasieran, helburu berdinez metodo berau erabiliko du.

Idea hauetatik sortuko da hainbestetan aipatzen den euskararen apologia. Izan ere, mito tradizional horiek defenditzean, mende haietako idazleak euskararen apologistak bihurtzen dira ezinbestez. Horrez gain, Espainian bertan euskararen aurka sortu zen mogimenduaren kontrako erreakzioa ere izan zen euskal hizkuntzari egiten zitzaion defentsa hori²⁵.

1.3. Oihenarten ikuspegia eta ekarria

Kantabrismoari zegokionez hain berritzaile zen Oihenartek, ze hedadura ematen zion euskarari Aro Zaharrean? Aldentzen al zen kasu honetan ere garaiko jakintsuetatik? Ezetz esan beharko genuke Caro Barojari kasu egingo bagenio: «abandonando el criterio textual, sostiene que el vasco ha sido la lengua de toda la Península en un principio, engendradora en parte del español» (1979, 15). Gorrochateguik, ordea, ez du horrela ulertzen Oihenarten iritzia: «Oihenart no defendía la extensión del euskera por toda la Península, ni siquiera era partidario de que fuera la lengua patrimonial del actual País Vasco: pensaba que el vascuence era la lengua de los “Vascones”, pueblo definido con mucha precisión en las fuentes clásicas de las que poseía un conocimiento bastante bueno.» (1984, 70).

Bi ikuspegi horiek besterik aditzera ematen badute ere, Oihenartek bere iritziak azaltzeko erabili ohi duen metodologia nahiko zehatza eta, ia beti, berdina da: lehenengo, *status quaestionis* edo delakoa agertu eta, horrekin

²⁵ Ezaguna den bezala, XVI. mendean, Espainian, gaztelararen defentsa eta gorakada gertatu zen eta, bide batez, hizkuntza klasikoren beherakada eta zokoratzea, eta bide horretatik hainbat ekintza literario eta erligioso eman ziren eta erabaki ofizialak hartu ere bai gaztelararen erabilera bultzatuz, beti ere latinaren kaltetan. Ikus, honi buruz, Romera Navarro (1929, 204 eta hur.). Gaztelararen aldeko ihardun eta apologia sutsu hori zela bide, euskararen aurkako mogimenduak ere ikusten dira mendearen azken laurdenean. Honen lekukorik nabarmenena Ambrosio de Morales eta haren *Discurso sobre la lengua castellana* (1586) litzateke. Idazle honek ez zuen euskara Penintsulako hizkuntza zaharra zenik ukatzen, baina erabiltzen zen bakarra zenik ere ez zuen onartzen eta ematen zitzaion hedadura zabalaren aurka ere agertzen zen. Marianak ere hitz iraingarriak erabiltzen ditu euskararen aurka, baina euskara Espainia osoan hitz egiten zen aldekoa zen.

Ohartu gaituzten une beretsuan sortzen direla gaztelararen eta euskararen aldeko lanak: Moralesen liburua Garibayrena baino hamabost urte beranduago sortua zen eta Poza Lizentzia-tuarena baino urte bat lehenago.

Kontutan hartu behar da ere, garai haietarako galdua edo erdi galdua zegoela euskararen ospe soziala eta horren lekukotasunak literaturan ugari samarrak dira. Ikus, gai honi buruz, Echenique (1990, 123-124).

Bestalde, Echenique-k berak (1987, 92) honela definitzen ditu euskal apologistak: «eruditos (vascos en general), que ponen especial ahínco en defender la dignidad del vascuence como lengua frente a la concepción del euskera como variedad lingüística baja».

batera, beste idazleen ideiak eta zitak ekarri. Horren ondoren bere iritzia eskeintzen du, nahiz aldekoa nahiz kontrakoa dela, ez badu, behinik-behin, besteen iritziekin batera berea ere sartu, haiekin bat datorrela inplizitoki aditzera emanaz. Nolanahi ere, kontuz irakurri beharra dago Oihenarten zenbait pasarte, darabiltzan arrazoi bideak kontrajarriak diruditen arren, barnean, elkarrekin ongi loturik egon ohi direlako.

Lehen liburuko XII. kapituluko «De la antigua lengua de los españoles. -Si fué la misma que la actual de los vascos. -Se examinan las razones de Ambrosio Morales, que lo desaprueba.» titulupean, beti bezala, aurrena besteen iritzia jasotzen ditu. Lehenengo, Espainia guztian euskaraz baino ez zela hitz egiten defenditzen zutenen izenak ematen ditu: «El mismo Marineo y Garibay creen que en toda España no se habló en lo pasado otra lengua que la de los Vascos, o Cántabros, como ellos la llaman» (1926, 169-170). Mariana ere aipatzen du, ideia hori bera defenditzen baitzuen²⁶.

Goraxeago esan dugu Morales ez zela iritzi horretakoa, euskararekin batera beste hizkuntza batzu ere hitz egiten zirela esaten bait zuen. Oihenartek gogor eta luze ihardesten du Moralesen iritzia, baina ideiaen aurka doala dirudien arren, hark darabilen metodoaren aurka doala zuzenago esan daiteke. Horretarako Moralesen oinarriko tesia agertzen du: «[...] se esfuerza en probar, que es diversa la antigua lengua de los españoles de la actual de los Vascos» (1926, 174), eta ondoren, zein metodoz baliatzen den tesi horri eusteko: «Morales se esforzó en destruir esta sentencia -euskara España guztian hitz egiten zen hizkuntza bakarra zela, noski-, recogiendo de Plinio y otros algunos vocablos españoles, que según opina, no se encuentran en la lengua moderna de los vascos» (1926, 170).

Jarraian bi galdera erretoriko egiten ditu: «Pero aunque concediéramos a Morales que todos aquellos vocablos son puramente españoles ¿bastaría esto para que nos obligara a admitir por el hecho mismo que en aquella nación existieron muchas lenguas totalmente distintas entre si? ¿No pasa en otras lenguas que en el largo curso del tiempo, se muden las voces y los modos de expresarse?» (1926, 170).

Metodo lexikoaz baliatzen da, beraz, Morales, baina Oihenartek, planteamendu logikoz, ez du metodo hori onartzen. Klasikoen zitaz baliatuz, denboraren iraganaz hitzen balioak eta hitzak berak ere aldatuz eta galduz joaten direla frogatzen du, gero galdera hau egiten duelarik: «En cambio ¿qué argumento tiene Morales para dictaminar que las voces, por él coleccionadas, proceden más bien de la antigua y primitiva lengua de los españoles, y no

²⁶ Esan behar da, halere, J. Saroihandyk (1922, 451) agerian jarri zuen bezala, Marianak beste pasarte batean esaten duena, hau da, euskara ez zela Espainian egiten zen hizkuntza bakarra, beste batzuen artean mintzatzen zenetako bat baizik, hori Oihenartek aipatu ere ez duela egiten.

de la nueva y adoptiva, llamada Romance, porque provino de la romana, siendo así que es cierto e indudable, que aquella había caído en desuso antes de la edad de Plinio, y que ésta había prevalecido en toda la España que obedecía a los Romanos?» (1926, 172). Jakina, hemen latinaren eraginaren aurka agertzen da Oihenart eta, onartzen baditu ere Moralesek latinetik hartutako zenbait adibide, beste batzu euskaratik datozenak direla defenditzen du: «Por lo demás, de ninguna manera es verdad, que todas las palabras, que dan por españolas los antiguos escritores, faltan en la lengua actual de los Vascos. Se conservan todavía algunas, que proceden de la antiquísima y propia lengua de este pueblo»²⁷. Hitz batzu baino ez ditu ematen: *lancea, gurdus, daureta, gesi*.

Kapitulua ez du burutzen bere irizpideak eskeiniz edo arazoa erabat finkatuz, Moralesen aurkako argumentazioarekin jarraituz baizik. Moralesek erabili zituen Tácito eta Sénecaren testigantzak jaso ondoren, Oihenartek bere alde itzultzen ditu: «Estas palabras de Tácito y Séneca arguyen, que los españoles, y quizás también los Cántabros, tuvieron su propia lengua, o dialecto; pero no prueban que fué distinta de la moderna lengua vasca»²⁸ (1926, 174).

Kapitulu honetan, beraz, Moralesen aurka ari denean ez du hainbeste Moralesen teoria eragozten, bere metodo lexikoa gaitzesten baizik, gero Oihenart bera, ikusiko dugun bezala, metodo horretaz baliatuko bada ere.

Hurrengo kapitulua, XIII. alegia, da garrantzitsuena Oihenarten iritzia jasotzeko. Bertan azaltzen du bere ikuspuntua izenburuan dioen bezala: «Opinión del autor sobre la antigua lengua de los españoles» (1926, 329). Horrela hasten du: «Ahora bien, en esta lucha de pareceres opuestos entre sí, yo, así como *no quiero mantener con demasiada pertinacia*²⁹ que fué una sola la lengua de todos los españoles en los tiempos pasados, sobre todo cuando Estrabón asegura, en el lib. 3, que hubo varias [...]», esaldiaren bigarren klausulan jarraitzen duelarik: «[...] tampoco admito que la vasca estuviese encerrada dentro de los mismos límites en que está actualmente; pues son muy estrechos». Edozein modutan ere, horri eusteko ematen duen arrazoa hizkuntzari buruzkoa ez bada ere zuzen zuzenean, ez daiteke uka euskararen izateari eta baliakizunari buruz duen iritzia garbi agertzen duela: «y por lo mismo no es verosímil que la sabia disposición de la naturaleza haya dado

²⁷ Pasarte honetan jasotzen ditu euskararentzako iraingarriak gertatzen diren beste idazle batzuk erakutsiriko irizpideak: «[...] no empero de la adventicia y nueva, a la que Sidonio llama escoria del lenguaje aborto del lenguaje latino» (1926, 173). Marianari buruz ari denean ere ez da isiltzen: «[...] cuyas palabras, que son elegantes y dignas de tan gran escritor (exceptuando aquello que dice, que es una lengua bárbara, y que no admite cultura, siendo así que él no la poseía)». Ez da harritzekoa, bada, Oihenart ere apologista bezala behin baino gehiagotan hartua izatea.

²⁸ Azpimarratua geurea da.

²⁹ Azpimarratua geurea da.

a un pueblo tan pequeño lengua propia, casi inadecuada para todo negocio, y para trato y fomento de consorcio con los pueblos vecinos incómoda» (1926, 329). Bidenabar esan daiteke Euskal Herria, txikia izan arren, herri bezala hartzen duela; baina ez da garbi ikusten zergatik dioen «izadi jakintsuak» ezin diezaiokeala eman hain herri txikiari inguruko herriekin harremanak izateko hizkuntza hain desegokia. Ziurrenik, honek agertzen du historialariaren ikuspegia, ez bait zen euskara *lingua franca* izan eta euskaldunak inguruko herriekin harremanik izatekotan hizkuntza erromaniko batez baliatu beharra bait zuten.

Dena den, arrazoi horretan oinarrituz bere tesi propioa ematera iritsi nahi zuen, beti bezala, historiaren haritik leinuak aipatuz, euskara Penintsulako Iparralde osora hedatzen duelarik: «Creo que ésta fué la lengua de todos los pueblos montañoses, que vivían en el Norte de España, es decir, de los Vascos, Várdulos³⁰, Autrigones, Caristos, Astures, Cántabros, Gallegos y Lusitanos». Hemen ere iturri klasikoetan oinarritzen da: «pues ya que consta por Estrabón, que todos estos pueblos vivieron con las mismas costumbres y que practicaron la misma norma de vida, es justo creer que también tuvieron una lengua común»³¹.

Ongi ikusten da, beraz, Oihenartek ez zuela euskara Euskal Herrira mugatzen, baina ez du Penintsula osora ere zabaltzen, garbi esaten duelako ez zirela berdinak Espainiako iparraldeko eta beste espainiarren hizkuntzak: «que además, la lengua de los demás españoles no fué tan distinta, que no tuviera con las demás muchas cosas comunes». Hau da, hemen zehazki onartzen du latinaren aurretik mintzatzen ziren hizkuntzek bazutela euskararekin antzik, eta honetan oinarri daiteke Oihenart izan zela gero «vasco-iberismo» izenez deitua izan zen oinarritzko teoriaren lehenetariko aurkezlea. Caro Barojak garbi esaten du: «Hay que ver en Oihenart un primer expositor claro del vascoiberismo» (1979, 15); halere, hori soberaskotzat joko genuke, teoria bera baino teoriaren ideia nagusiak edo teoriaren muina jaso daitekeelako Oihenarten hitzetatik, hau da, garai zaharrea erabiltzen zen hizkuntza —iberikoa, alegia— eta euskara oso antzerakoak zirela, edo bazutela elkarrekin ahaidetasunik. Alabaina, ez dugu uste inon esaten duenik euskara Espainia osoan erabiltzen zen hizkuntza izan zenik³². Beraz, Caro Baroja, lehen jaso dugunez, Oihenartek

³⁰ Honekin garbi gelditzen da barduliarren hizkuntza zein zen eta Gorrochateguiren (1984, 70-71) iritzia ez dela hain egokia uste dugu.

³¹ Mañaricuk (1971, 266) zehatz jasotzen du testua.

³² Alde batera uzten dugu «Atsotizac edo Refrauc» (1935, 207) liburuari egiten dion sarreran dioena: «La Langue Basque (qui est la mesme que l'ancienne Espagnole, comme l'au montré ailleurs)». Bidenabar baizik ez du egiten komentario hori eta, egia esan, gure ustez orokorregia gertatzen den aipamena da. Bestalde, berak ematen duen erreferentea aurretik idatzitakoa da, hau da, aurreko urtean argitaratu zuen *Notitia*-ren bigarren argitalpenekoa eta hemen komentatzen ari garena. Horregatik, bada, benetan baliagarria den ikuspuntua, zehatza eta gartua gainera, *Notitia*-n azaltzen duena dela uste dugu.

Espainia osoko hizkuntza euskara izan zela dioenean, ez dugu uste erabat zuzen dagoenik, eta, beharbada, esaten duen hori «vasco-iberismoaren» teoriaren baitan ulertu beharko litzateke. Egia da Oihenartek dioela: «Y que se distinguían más como dialectos que como idiomas (como ahora se distinguen los Castellanos, Portugueses y Catalanes)» (1926, 329), baina alde batetik, ez du dialektuak zirela esaten eta konparazio bezala erabiltzen ditu hitz horiek, «dialecto» eta «idioma», elkarren artean zein antz eta lotura handia izan zezaketen aditzera emateko; eta bestetik, esaldi hori ere Oihenarten testuinguru osoan jaso behar da, eta ingurune horretan garbi agertzen du Espainian hizkuntza ezberdinak erabiltzen zirela.

Hitz hauen eta aurretik Moralesen aurka esaten zituenen artean ez dago, bada, kontraesanik. Laburbilduz, uste dugu Oihenart, puntu honetan ere, aintzintu egin zela eta urrats garrantzitsua eman zuela. Bestalde, Oihenartek hizkuntzalaritzaren historian ere aurrerakada handia suposatzen du, gero eraginik izan ez bazuen ere. Iturri klasikoetan oinarrituz historia errazionalista egiten du, mitoak baztertuz horien inguruan sortua zegoen mitologiarekin erabat apurtzen duelako. Kontutan hartzen baldin bada hori XVII. mendean egin zuela, lorpen handitzat iritzi daitekeela uste dugu. Esan bezala, ez zuen ez eskolarik sortu ez jarraitzailerik izan, eta hori bai dela deitoragarria.

2. OIHENARTEN ZENBAIT BARNEKO IDEIA LINGUISTIKOZ

2.1. Metodo etimologikoa

Oihenartek Moralesen metodologia erabat onartzen ez duen arren, berak ere bide beretsua hartzen du iritziei eusteko. Ez dio ongi irizten Moralesek euskarazkoak ez diren gaztelerazko hitzetan oinarritzea bere froga, baina berak, hain zuzen ere, gaztelerak dituen euskal hitzetan indartzen du argudiobidea eta hitz horiekin frogatu nahi du hizkuntzen ahaidetasuna: «me lo persuade el hecho de encontrarse en la composición de la lengua española actual ciertas reliquias o restos muy conformes a los elementos de la vasca, muchísimas expresiones puramente vascas, o sacadas de éstas» (1926, 329-330).

Egiaz, biak, Morales eta Oihenart, etimologiaz baliatu ziren; XVII. mendean egin zitekeen etimologiaz, zientziaz higitz urruti eta gaurko ikuspegitik erabat desbideratua gertatzen zena, intuitiboa eta subjektiboa, hitzaren formari antzerako formaren bat bilatuz eta esanahaiak, berez edo bortxaz, horrek ez bait zuen axolarik, elkarrekin egokituz.

Bere zentzu estuan hitz baten etimologia³³ bilatzeko eta hizkuntza ezberdinen edo hizkuntz estratu ezberdinen arteko harreman etimologikoa finkatzeko fonetikaren aldetik sortzen diren korrespondentziek erregularrak behar dute izan eta, halaber, gerta daitezkeen bilakaera semantikoak ere bai. Hauek, dakigun bezala, ez ziren XIX. menderarte lortu, gramatika historikoa garatu zen arte, noski.

Edozein gisatan, etimologia lana berez ez da erraza, baina betitik izan du erakarpen eta xarma berezia, eta hizkuntzen ahaidetasunaren inguruan aritu diren egile gehienak baliatu dira etimologiaz beren teoriak finkatzeko. Helburua linguistikoa izan ohi zen maizenik: hizkuntza baten jatorria bilatu edo bi hizkuntzen artean izan daitekeen jarraigoa finkatu. Esan bezala, hitzen forma hutsez edo hotsen ebokazioaz baliatzen ziren, beti ere edukia edo esanahia elkartuz edo egokituz edo, gutxienez, justifikatzen saiatuz, noski. Baziren, azkenik, etimologiaz baliatzen zirenak hizkuntzalaritzatik kanpoko gaietarako arrazoiak eta oinarriak bilatzeko, hala nola, mitoak, leiendak eta abar sustraitzeko, eta horien laguntzaz, historia bera egiteko. Egia esan, askotan ez da erraza jakiten, etimologietan ari direnean, hizkuntza lantzen edo zertan ari diren.

XVI. mendean egiten dena, latineko etimologia klasikoaren eta San Isidorok egiten zuenaren jarraipena baino ez da. Garbi aski mintzatzen da Caro Baroja dioenean: «El sistema isidoriano les chifla —euskaldunei, alegia—: pero a los “castellanos” les pasa igual y los historiadores, reyes de armas, etc., inventan etimología sobre etimología a base de descomposiciones de las palabras, “apoyadas” en largas narraciones justificativas o en hechos inventados “a posteriori”» (1972, 347). Etimologietarako, toponimia hartzen zuten orohar, toponimia nagusia gehienbat, baina, konbeniz gero, baita xehea ere: herri eta hirien izenak, erreka eta ibaienak, mendienak, eta abar. Antroponimoak edo pertsonen izenak, eta lexema nominal arruntak ere, garai hartan, aztergai etimologikoa garrantzitsua izan ohi ziren sarri.

Euskal Herrian, goian esan den bezala, Garibay³⁴ zabaltzen du metodo hau, gero, bere jarraitzaileen artean, Echavek, Moretek eta Pozak, azken honek batez ere, hark baino izen haundiagoa hartu bazuten ere. Horien asmorik behinena lehen aipatua zen: Espainiako lurretan jasotako toponimiaren azterketaren bitartez Espainian garai zaharrean egiten zen hizkuntza euskara zela frogatzea eta, horren ondorioz, Espainian euskara izan zela hizkuntza lehenengoa eta orokorra.³⁵

³³ *Etimologia* Th. Bynon-ek ulertzen den moduan erabiltzen dugu: «historia formal y semántica retrotraída en el tiempo hasta que se alcance una gramática anterior, o hasta la gramática de una lengua donante, si se trata de un préstamo, cuyas reglas productivas puedan explicarla por completo.» (1981, 95).

³⁴ Garibayk eginiko etimologiaren azterketa ikusteko, Zubiaur (1990, 149-196).

³⁵ Oso esanguratsua gertatzen da Fray Hernando de Ojedak Echavek idatzitako *Discursos* liburuari egiten dion sarreran dioena, alegia, Echaveri esker daukatela: «noticia de la inteligencia y significación de muchos nombres de pueblos, montes, ríos y valles, así de Galicia como

Aipaturiko egile horiek ezagunak zituen Oihenartek eta hizkuntzalaritzaren aldetik interesgarriena den XIII. kapitulu honetan horien erreferentzia zehatza egiten du: «En fin, que los nombres propios de algunas ciudades, pueblos, hombres, montes y ríos de España, que se conservan en los escritores antiguos, conservan huellas de la lengua vasca, ya lo advirtieron Andrés de Poza y Baltasar Chevesio (sic), en los libros publicados sobre este argumento». Baina ohartzen da egin duten azterketa ez dela behar adina aprobetxagarria: «sin embargo, los eruditos en estas cosas tendrán en cuenta que en ellos hay no pocas cosas omitidas y otras escritas con poca cautela» (1926, 336). Oihenart bera ez da toponimiaz gehiegi baliatzen, «Ilia / Iri»ren arteko parekotasunaz mintzatzen bada ere.

Kapitulu beraren hasieran, alfabetoko lehenengo lau letren arabera, gazteleatik hartutako zenbait hitzen etimologia ematen du, denak, bere ustez, euskaran dutenak jatorria. Ez du metodo finkaturik hitzak hautatzerakoan ere. Hona hemen banaka batzu, lehendabizikotik hasita: «*A-zucena*, lo recto, la cosa recta, porque la azucena cría el tallo más recto y largo de todas las plantas» (1926, 330). Era berean, «Ahorrar.- De la voz vasca *Aburra* o *ahorra*, es decir, lo que se tiene dentro de la palma de la mano, asido y encerrado»; «Atrever: *Atrevize*, de la palabra *Treve*, que en vascuence designa a una persona muy práctica para una cosa, y resuelta para emprenderla» (1926, 330); «Behetrías.- Del vasco *Bere-tiriac*, pueblos independientes, o, *Behet-Iriak*, pueblos de abajo, por estar situados en lugares bajos, es decir, fundados en los valles, fuera de los montes ásperos; los de aquí no eran defendidos por poblaciones o ciudades sino por castillos de donde la mayoría de autores deriva el nombre de Castilla» (1926, 332)³⁶.

Deigarria gertatzen da gaur egungoentzat hain arabiar jatorri garbia duten gaztelerako hitzak euskaratik etorri araztea: «alcalde», «alcandora», «aljabá»,

de todas las otras Provincias de España, que todos ellos se hallan en la lengua Cántabra, y en ella tiene su propia (sic) significación. Por lo cual viene à entender claramente que *en toda ella se hablo en los principios de su población, la misma lengua que se habla agora en la Cantabria.*» (Azpimarratua gurea da). (1971, 7).

³⁶ Aipagarria da Larramendiren kasua. Ez lexikoari buruz ari denean Oihenarten aipamenik ez duelako egiten soilik, harrigarria gertatzen bada ere, baizik haren etimologiez ez duelako ezer esaten. Aipagarria gertatzen da bere hiztegiari ematen dituen etimologiengatik, hainbat hitz azaltzerakoan zuberotarraren lanean inspiratua dagoela bait dirudi. «Azucena es voz bascongada y viene del vascuence *zucená* que significa derecha, y es la flor que mas derecha sube.» (1853, 17); «Ahorrar, reservar de lo que se habia de gastar. En este sentido viene del bascuence *ahorra* ú *ahurrá*, que en el dialecto significa la mano medio cerrada, como de quien guarda y retiene algo.» (1853, 49). «Atreverse viene del bascuence *atrebi*, *atrebitzea*, y este del nombre *trebé*, que significa diestro y hábil para emprender cualquiera cosa.» (1853, 127). «Behetria es voz bascongada. En lo antiguo behetrias significaban pueblos que á su arbitro elegian Señor; y en este sentido viene de *beret-iriac*, *beret-erriac*, que se interpretan villas y tierras de su arbitro...» (1853, 151).

«almud», «aldea», «atalaya», «zanahoria» eta abar. Latinetik datozenak ere ematen ditu, ordea: «andas», «burbuja», «cansar», «catar», «cuita»³⁷.

Baditu, bestalde, protohispanikotzat jotzen diren hitzak edo etimologia ezagunik ez dutenak: «balsa», «atocha», lehenengoetarako; «bruces», «cachorro», «argamasa»ren lehen partea, «caracol», «zahurda», «zapato», bigarrenengoetarako. Edo euskararekin lotuagoak daudenak ere: «azcona», «carcajada», «cencerro», «zurrar».

Guzti honekin zera esan nahi nuke: erabiltzen duen metodologia eta egiten duen etimologia mota ez bada egun onartzeko modukoa ere, latinaren eta gazteleraren ezagupen sakon eta zorrotzaz gain, hainbat hitz hautatzean ez zebilela hain desbideratua, hainbat kasutan behinik-behin. Ez daiteke Oihenart etimologotzat har, ez ontzat ez txartzat, ez bait da bere xedea etimologia egitea, hitzen zerrenda, berak dioenez, eskaintzea baizik, adibide gisa baino ez bait ditu ematen. Eta berak «hispano-vascas» deitzen dituen hitzen zerrenda ere luza daitekeela esaten du, honekin garbi uzten duelarik hizkuntzaren jatorriaz eta hizkuntzen arteko zerikusiaz edo harremanez ari dela.

2.2. Oihenart fonetista aintzindaria

Oihenarten ikuspegi gramatikala zorrotza izan zen, eta hori ez du inork dudetan jartzen³⁸, baina ez dugu Oihenartek gramatika mailan egin zuen lana aztertuko, badirelako Biltzar honetan beste batzu hori garatu dutenak. Bada, ordea, arlo bat, ez gramatikakoa zuzenean, Oihenartek oso maite zuena, olerkaria eta prezeptista izatearen eraginez ziurrenez, eta etimologiarekin lotzen dena, bestalde: hitzen ahoskera eta ahoskerak izan duen bilakaera, hain zuzen.

Gaztelerako «ue» diptongoa, batez ere hitzen hasieran, «o» bokaletik zetorrela hainbat aldiz ohartu zen: «es frecuente entre los españoles, sobre todo al principio de palabra, mudar la vocal O en diptongo Ue o Oe como son *sueno*; así el *cozar* en *coezar*, y de aquí la palabra *Cohechar*» (1926). Era berean ematen ditu, eusk. *croca* > gazt. *clueca*; eusk. *corde*, *gorde* > gazt. *cuerdo*; eusk. *apostu* > gazt. *apuesta*.

Euskaran biezpainkari sudurkari eta ahozkoaren arteko txandaketaz ere ohartua zegoen: «B y M son letras afines en los nombres vascos y se cambian

³⁷ Corominasen hiztegi etimologikoa hartu da erreferente bezala (1980).

Dena den, Oihenartek zerrenda honetan latinetik datozen hitzak sartu arren, onartzen du etimologia garbia duten beste hitz batzuren latineko jatorria. Garbi agertzen da hori *Atsotizac edo Refravac* liburuari egiten dion sarreran ahoskerari buruz ari denean: «Mais aussi nos Basques; ce qui se collige de ces mots *Baké*, paix, (qui vient du Latin, *pace*) *doné Vikenti*, qui veut dire Saint Vincent, *Legue*, Loy, *Erregue*, Roy (qui viennent du Latin, *Lege & Regue*) & de quelques autres mots qui ont esté empruntez de la langue Latine» (1935, 211).

³⁸ Mende hasierako J. Saroihandyk Euskal Ikaskuntzaren Kongresurako aurkeztu zuen txosten interesgarri eta zehatzean, Oihenarten gramatikazko ekarri garrantzitsuenak laburbilduz ematen ditu (1923, 41-46). B. Oyharcabalek garrantzitsuenak jaso ditu (1989, 60-61).

a menudo»: eusk. *musu* > gazt. *buz* eta *buzos*. Biezpainkari ahostun eta ahoskabearen arteko txandaketa ere aipatzen du: «*pusca* o *busca* (pues de estos dos modos se pronuncia)». (1926, 332-333).

Toponimian hainbeste dokumentatzen den dardarkari / albokariaren aldaketaz ere mintzo da: «Ambrosio de Morales, archivo de toda la antigüedad ibérica, observó ha tiempo, que *Ilia* es voz española antigua, que denota ciudad. Mas esta palabra la conserva la lengua vasca todavía en el mismo sentido, mudando la letra líquida *L* en *R*, como es corriente también en muchas otras voces, tales como *Arava*, por *Alava*, *Añgeru*, por *Angel*, *ceru* por *cielo*». Eta ezaugarri honetan oinarrituz, bereizketa diatopiko bat ere egiten du: «...el Procónsul Tiberio Sempronio Graco, después de vencer a los Celtíberos, fundó, en memoria de sus hazañas, en España, el pueblo de Gracurís, palabra que en Vascuence significa la ciudad de Graco; pues a lo que los Navarros y los Vascos aquitanos llaman *Iri*, los otros vascos, que habitan en la Vardulia, denominan *Uri*» (1926, 336).

Etimologia lana haratago eramaten du maileguen teoria morfologiako atzizkietara pasatzen duenean, aldaketa fonetiko baten bitartez arrazoitzen duelarik atzizkien bilakabidea. Hona zer dioen: «También la sílaba *go*, que algunas veces se une con la preposición con *a* los pronombres de primera y segunda persona, así: *conmigo*, *contigo*, es vestigio de antigua lengua, la cual llevaba la preposición latina *cum*, en vez de *go*, al fin del vocablo, de la misma manera que lo hace hoy el Vasco, por *ga* o *gas*, como *niga* con *migo*, *higa*, contigo: y en cuanto al plural, no es *go* sino *co*, y se dice *connusco*, *combusco*, y no *connusco*, *combusgo*; se ha de decir también esto, porque en aquella lengua al intercalar *g*, dejando la consonante *S*, se transformaba en la suave *C*; lo cual se conserva hoy en la lengua vasca.» Eta hain arrunta den kanpo sandhia dakar: «Por ejemplo, la voz *gara*, que es la primera persona plural del verbo substantivo. Cuando ésta se combina con la partícula negativa es, *G* muda o *C* o *K*. Así del simple *gara*, *somos*, se forma el compuesto *escara*, *no somos*.» (1926, 336).

2.3. Oihenart dialektologia?

Oihenartek, *Notitia* idazten duenean Euskal Herriko historia idazten ari dela beti aurrean izan behar da, beste gaiez ari denean ere helburu nagusi hori agirian jartzen bait da. Hori gertatzen zaio, esaterako, euskalkiez mintzatzen denean, kronika egin bitartean egiten bait du haiei buruzko erreferentzia. XI. kapituluan, hasieran, euskaraz non egiten zen azaltzen du: «la usan a esta parte del Pirineo, ahora la máxima parte de Navarra, toda Guipúzcoa, Alava y Bizcaya; al otro lado del Pirineo, los tres distritos, que se designan con el nombre de Vasconia o tierra de los Vascos, a saber, Laburdi, baja Navarra y Soule» (1926, 169). Azalpen orokorregia Nafarroa eta Arabako lurraldeei

dagokienez; gogora ekartzen dizkigu Zaldibiak eta Garibayk mende bat lehenago egin zituztenak, zehatzaioak baitira³⁹.

Bere Gramatika egiterakoan Iparraldeko hizkera jarraitzen duela justifikatu bidenabar egiten duen euskalkien bereizketa edo ezaugarriketa oso orokorra da: «hemos seguido casi únicamente el dialecto de la Vascitania, es decir, el usado por los vascos aquitanos, vulgarmente denominados los vascos en la actualidad. La forma navarra difiere no poco de ésta, más de la Vardulia, o sea de Guipúzcoa y Alava, más que ninguna la autrigónica, o bizcaína, cuya exposición y mutua comparación en particular no es objeto de nuestro trabajo actual» (1926, 353). Beraz, lau euskalki bereizten dituela esan daiteke, Arabako Gipuzkeran sartzen duelarik. Gainera, euren artean desberdintasunik ere gertatzen dela azaltzen du eta Bizkaiko euskalkia gehien bereizten dela ere esaten du beste pasarte batetan: «los vascos occidentales [...] porque se apartan, no sólo de la verdadera analogía, pero también del uso y modo de hablar de la máxima parte de la Vasconia» (1926, 343).

Euskalkiak azaltzean, historialaria denez, lurraldeak eta leinuak lotzen ditu, bizkaitar denak autrigoien leinuan sartuz eta karistiarren aipamenik egin gabe eta, bestalde, Gipuzkoako eta Arabako Ekialdeak, berez karistiarrek, barduliarrekin bat eginez. Caro Barojak, akats hauetan oinarriturik kritikatu egiten du: «Tales reducciones son no sólo insuficientes, sino también inexactas» (1973, 292). Halere, zehatasun batez egiten den lehenengo deskribapena da eta ez zen, gainera, deskribapen hutsean gelditu.

Maila fonikoaren ezaugarrietan oinarrituz egiten ditu euskalkien arteko bereizketak: «ü» bokala Zubereraz eta Behe Nafarreraren zenbait tokitan baizik ez zela ahoskatzen hartaratu zen⁴⁰; «au» eta «o» formen txandaketa aipatzen du erakusleen ahoskeran, bigarren hau Iparraldean (1926, 340); Hegoaldeko aspiraketaren faltaz eta Nafarroako bokalen laburketaz ere mintzo da.

³⁹ Hona Zaldibiarena: «Háblase esta lengua en Guipuzcoa, Vizcaya y Encartaciones, Alava, lo más interior de Navarra y en Labort y Vascos; y donde más perfectamente y con menos mistura de otras se habla es Vascos» (1972, 129). IV. kapituluan, «Que habla de la lengua vascongada y de donde tuvo su origen», egiten du azalpen hori. Adierazgarria gertatzen da hemen «vascos»i ematen dion balorea, ez bait ditu, orohar, Iparraldekoak sartzen.

Garibayk, berriz, behin baino gehiagotan seinalatzen du euskararen hedadura, baina hau litzateke pasarterik zehatzena: «se habla en las regiones de la mayor parte de Cantabria, especialmente en las provincias de Guipuzkoa, Alava, Bizcaya, y en gran parte del reyno de Navarra, y en particular en todo el distrito de la merindad de Pamplona, con las mesma ciudad, cuya merindad es la mayor de las cinco en que todo el reyno se divide. Estiéndose más esta lengua hasta Francia, en las regiones que con Guipuzcoa y Navarra confinan, porque se habla en la ciudad de Bayona y en su Obispado y en todos los vertientes de los Pirineos, hasta el Señorío de Bearne» (1988, 77).

⁴⁰ «L.V voyelle se prononce en Basque comme, ou, tout ainsi que'es Langues Italienne & Espanole, excepté au país de Soule, & en quelques endroits de la Bassé-Nauarre, où il se prononce comme l'u François» (1935, 212).

Morfologia mailan «a»ren erabilera nominatibo pasiboren kasuan aipatzen du (1926, 340); Iparraldeko ergatibo pluralaren erabilera (1926, 339); eta Mendebaldeko partizipoak egiteko bereizketa.

Lehen aipatu dugu egiten duen «uri / iri»ren banaketa diatopikoa ere.

Azkenik, XVII. mendean egonik, dialekto lexemari balore zehatza eta tinkoa ematen dio «dialecto» eta «idioma» formak aipatzerakoan ipintzen duen adibideagatik, XIII. kapituluaren hasieran Kantabriako herrien hizkeraz ari delarik horrela bait dio: «Y que se distinguían más como dialectos que como idiomas (como ahora se distinguen los Castellanos, Portugueses y Catalanes), [...]» (1926, 329). Ez dago hemendik irmotasun osoz ateratzerik egungo erabilera bezalakoa den hitz honena, baina bai gaurko erabileratik oso hurbil dagoela, eta hori ez da gutxi, gero ere ez bait da faltatuko istilurik zer den eta zela ulertu behar den dialektoa erabakitzeko.

AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

ALARCOS GARCIA, E.: 1934, «Una teoría acerca del origen del lenguaje», *BRAE* 21, 209-228.

BAHNER, W.: 1966, *La lingüística española del Siglo de Oro. Aportaciones a la conciencia lingüística en la España de los siglos XVI y XVII*, Ciencia Nueva, Madrid.

BONFANTE, G.: 1954, «Ideas on the Kinship of the European Languages from 1200 to 1800», *Cahiers d'histoire mondiale* I, 680-681.

BYNON, Th.: 1981 (1977), *Lingüística histórica*, Gredos, Madrid. (J.L. Melenaren itzulp.).

CARO BAROJA, J.: 1958, *Los vascos*, Itsmo, Madrid.

— 1972, *Los vascos y la historia a través de Garibay*, Txertoa, San Sebastián.

— 1973, *Estudios vascos*, Estudios Vascos VII, Txertoa, San Sebastián.

— 1978, *Sondeos históricos*, Estudios Vascos VIII, Txertoa, San Sebastián.

— 1979, *Sobre la lengua vasca y el vasco-iberismo*, Estudios Vascos IX, Txertoa, San Sebastián.

COROMINAS, J.-PASCUAL, J.A.: 1980, *Diccionario etimológico castellano e hispánico*, Gredos, Madrid.

COSERIU, E.: 1972, «Andrés de Poza y las lenguas de Europa», *Studia Hispánica in Honorem Lapesa* III, Madrid, 199-217.

— 1972, *Tradición y novedad en la ciencia del lenguaje. Estudios de historia de la lingüística*, Gredos, Madrid.

DUBOIS, C.G.: 1970, *Mythe et langage au seizième siècle*, Ducros, Bordeaux.

ECHAVE, B. de: 1971 (1607), *Discursos sobre la Antigüedad de la Lengua Cantabria Bascongada*, La Gran Enciclopedia Vasca (Edizio faksimila), Bilbao.

ECHENIQUE ELIZONDO, M.T.: 1987, *Historia lingüística vasco-románica*, Paraninfo, Madrid.

— 1990, «Vascos y vascuence en textos romances», *Homenaje al Profesor Lapesa*, Universidad de Murcia, 121-126.

ETXEBARRIA, M.: 1988, «Ideas lingüísticas en la obra de Baltasar de Echave», *Estudios de Lengua y Literatura*, Universidad de Deusto, 67-79.

GARIBAY Y ZAMALLOA, E.: 1998 (1571), *Compendio Historial* (4 ale), Lejona. (1628ko edizioaren edizio faksimila, Gerardo Uñak paratua).

GORROCHATAGUI, J.: 1987, «Andrés de Poza y el euskera», *ASJU* XIX-2, 571-594.

— 1984, *Onomástica indígena aquitana*, EHU/UPV, Bilbao.

LAZARO CARRETER, F.: 1949, *Las ideas lingüísticas en España durante el s. XVIII*, Revista de Filología Española, Madrid.

LARRAMENDI, M.: 1853, *Diccionario trilingüe catellano, bascuence, latín*, (2. argit.), Pío de Zuazua, San Sebastián.

MAÑARICUA, A.E. de: 1971, «Los vascos vistos en dos momentos de su historia», *I Semana Internacional de Antropología Vasca*, 261-304.

- 1973, *Historiografía de Vizcaya*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.
- MARTINEZ DE ZALDIBIA, J.: 1945, *Suma de las Cosas Cantábricas y Guipuzcoanas*, Diputación de Guipuzcoa, San Sebastián.
- MITXELENA, K.: 1960. *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madrid.
- OIHENART, A.: 1926-28 (1656) «Noticia de las dos Vasconias, la Ibérica y la Aquitana», *RIEV* 17, (141-174); (329- 355); (475-515). (A. Javier Gorosterratzu-ren bigarren edizioaren itzulp.). (Hemen azaltzen diren orrialdeak *RIEV* 17. zenbakiari dagozkie, hau da, lan honetan aipatzen diren bakarrei).
- 1935 (1657), «Atsotizak edo Refravac», *RIEV* 26, 201-264; 665-719.
- OYHARÇABAL, B.: 1989, «Le travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729)», *ASJU* XXIII-1, 59-73.
- PETERSEN, H.: 1931, *Linguistic Science in the Nineteenth Century*, Cambridge.
- ROMERA NAVARRO, M.: 1929, «La defensa de la lengua española en el s. XVI», *Bulletin Hispanique* 31, 69-213.
- ROBINS, R.H.: 1970, *A short History of Linguistics*, Indiana University Press, Bloomington-London. (Gaztelerako itzulpena: 1984, Paraninfo).
- SAROIHANDY, J.: 1922, «Oihenart contra Garibay y Morales», *RIEV* 13, 448-455.
- 1923, «Doctrina gramatical de Oihenart», *3er. Congreso de Estudios Vascos*, Gernika, 41-46.
- TOVAR, A.: 1980, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Alianza, Madrid.
- ZUBIAUR, J.R.: 1990, *Las ideas lingüísticas vascas en el s. XVI*, (Zaldibia, Gariabay, Poza), Mundaiz, San Sebastián.